

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZUIAKO UDALA

Zuiako udalerrian, mendekotasun egoera aitortuan dauden edo ehuneko 65eko edo hortik gorako ezgaitasun maila duten pertsonak, edo horretarako izapideak egiten ari direnak, etxean zaintzeko langileen kontrataziorako laguntzak ematea ezartzen duten oinarri arautzaileak eta deialdia

Udal Osoko Bilkurak 2026ko apirilaren 16an egindako saioan honako hau erabaki zuen, beste batzuen artean:

– Honako arlo hauetan dirulaguntzak emateko deialdia eta dirulaguntza horien oinarri arautzaileak onartzea: Zuiako udalerrian, mendekotasun egoera aitortuan dauden edo ehuneko 65eko edo hortik gorako ezgaitasun maila duten pertsonak, edo horretarako izapideak egiten ari direnak, etxean zaintzeko langileen kontrataziorako laguntzak.

– Erabaki honen bidez araututako diru-laguntzak 2026ko gastuen aurrekontuko 231.480.090 partidaren kargura ordaintzea.

– Deialdi horiek ALHAOn argitaratzea.

Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegi egokian (txandaren arabera), eta horretarako bi hileko epealdia egongo da erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Dena den, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu aurretik aukerako berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio argitaratutako berariazko ebazpena eman duen organoari, eta horretarako hilabeteko epealdia egongo da hura argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Murgian, 2026ko maiatzaren 6an

Alkate-udalburua
UNAI GUTIÉRREZ URKIZA

ZUIAKO UDALERRIAN, MENDEKOTASUN EGOERA AITORTUAN DAUDEN EDO EHUNeko 65EKO EDO HORTIK GORAKO EZGAITASUN MAILA DUTEN PERTSONAK, EDO HORRETARAKO IZAPIDEAK EGITEN ARI DIRENAK, ETXEAN ZAINTEKO LANGILEEN KONTRATAZIORAKO LAGUNTZAK EMATEA EZARTZEN DUTEN OINARRIAK

1. artikulua. Xedea

Deialdi honen helburua da menpekotasun egoera aitortuan edo horren ebaluazio prozesuan dauden pertsonak zein ehuneko 65eko edo hortik gorako ezgaitasun maila duten pertsonak euren etxeetan zaintzeko langileen kontratazioaren ondoriozko 2026 osoko gastuak ordaintzen laguntzea. Laguntzak norgehiagoka araubidean emango dira, eta Zuiako Udalaren plan estrategikoan xedatutakoa gauzatzeko.

2. artikulua. Onuradunak

Zuian erroldatuta dauden pertsonak izan ahalko dira laguntza hauen onuradunak, baldin eta, menpekotasun egoera aitortuan edo horren ebaluazio prozesuan egonda, zein ehuneko 65eko edo hortik gorako ezgaitasun maila egiaztatua izanda, hirugarren pertsona edo erakunde bat kontratatzen badute, bere etxean behar dituen oinarritzko zaintzen zati bat jasotzeko, eta oinarri hauen 3. ataleko eskakizunak betetzen badituzte.

3. artikulua. Onuradunen eskakizunak

1. Eskaera aurkezten den egunean, Zuiako udalerrian erroldatuta egotea eta bertan erroldatuta egoten jarraitzea diru-laguntza jasotzen den denbora osoan, genero indarkeriaren biktima izaera duten pertsonak salbu, segurtasun arrazoiengatik eta izaera hori genero indarkeriaren aurkako oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 23. artikuluan ezarritakoari jarraituz egiaztatzen badute.

2. Etxean edo familia ingurunean zaintzak jasotzea, erakunde edo pertsona fisiko batekin legez ezarritako kontratu baten bitartez.

3. Udal gizarte zerbitzuei menpekotasun egoeran dagoen pertsonaren etxebizitzan sartzen uztea, baldintzak betetzen direla edo zirkunstantziak aldatu direla egiaztatzeko.

4. Zuiako udalaren zein administrazio batzordeen zerga, tasa eta zigorren ordainketak egunean izatea.

5. Zaintzak jasotzen dituen pertsonaren familia unitateak 3.000,00 eurotik gorako eta 30.000,00 eurotik beherako diru sarrera haztatuak jaso beharko ditu.

Sarrerak haztatzeko honako hauek izango dira kontuan: sarrera konputagarriak, bizikidetza unitateko pertsona kopura, hala badagokio, eta sarrerak dituzten bizikidetza unitateko kide kopurua.

Aipatu 38/2008 Dekretuaren 21. artikuluan zehaztutakoak dira sarrera konputagarriak.

– EAEn Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpena aurkeztu behar izan dutenek eta beharrik izan ez arren, aurkeztu dutenek, dagokion PFEZ aitortpenaren edo aitortpenen oinarri ezargarri orokorrak eta aurrezkikoak eta laneko etekinei ezarritako hobariak zenbatuko dira. Eta dagokionean, baita salbuetsitako errentak ere.

– Errentaren gaineko zergen aitortpena EAEn aurkezteko betebeharririk ez duten pertsonen kasuan, sarrera hauek zenbatuko dira: a) Lan etekinei eta langabezia prestazioei dagokienez, kontzeptu guztietan egiaztatutako sarrera gordinen ehuneko ehuneko 95; eta b) Pentsioei eta langabezia sorospenei eta halaber zergarik gabeko dietei dagokienez, kontzeptu guztietan egiaztatutako diru sarrera gordinen ehuneko 100.

Diru-sarrerak haztatzeko, formula hau erabiliko da:

$$DH = DK \times N \times A$$

Honako hauek izanik,

DH: diru-sarrera haztatuen zenbatekoa.

DK: diru-sarrera konputagarriak.

N: haztapan koefizientea, familia unitateko kide kopuruaren arabera.

A: haztapan koefizientea, diru-sarreraren ehuneko 20 gutxienez irabazten duten familia unitateko kideen kopuruaren arabera.

N= PERTSONA KOPURUA	A= HARTZAILE KOPURUA
1 pertsona: 1,00	1 hartzaile: 1,00
2 pertsona: 0,95	2 hartzaile: 0,90
3 pertsona: 0,90	3 hartzaile edo gehiago: 0,85
4 pertsona: 0,85	
5 pertsona: 0,80	
6 pertsona: 0,75	
7 pertsona: 0,70	

4. artikulua. Enpresa edo pertsona laguntzailearen eskakizunak

Hona laguntzaile pertsonal gisa diharduen pertsonari aplikatzeko baldintzak:

1. Adin nagusikoa izatea.
2. Zerbitzuak ematen dituen eta behar bezala homologatuta eta baimenduta dagoen enpresarekin formalizatutako kontratu baten bitartez ematea zerbitzuak, edo bestela, zuzenean laneko edota zerbitzuak emateko kontratu baten bitartez.
3. Gizarte Segurantzako afiliazio, alta eta kotizazio baldintzak betetzea.
4. Onuradunaren ezkontidea, eta/edo odol, ezkontza edo adopzio ahaidetasunezko hiru-garren mailara arteko ahaidea ez izatea, eta familia harreraren ondoriozko loturarik ez izatea.

5. artikulua. Onuradunen betebeharrak

Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 14. artikuluan eta Zuiako Udalaren diru-laguntzak ematea arautzen duen ordenantzaren 6. artikuluan ezarritakoaz gainera, honako hauek ere badira onuradunaren betebeharrak:

- Diru-laguntza zertarako eman den, horrexetarako erabiltzea.
- Zuiako Udalari eskatzen zaien informazio osagarri guztia eman behar diote.
- Diru-laguntza emateko kontuan hartu den edozein baldintza subjektibo zein objektibo aldatu bada, udalari eman beharko zaio aldaketaren berri.

6. artikulua. Eskabideak aurkeztea: epea eta modua

Eskabidea, Zuiako Udalaren egoitza elektronikoaren bidez egingo da, Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2.a artikuluan xedatutakoaren arabera, eta, salbuespen gisa, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazitako edozein bide erabiliz, uneko urteko iraileko azken egun baliiodunera arte. Aurkeztuko da:

1. Eskaera inprimakia, behar bezala beteta eta sinatuta.
2. Laguntzaren eskatzailearen indarreko NANaren edo egoitza txartelaren, edo pasaportearen fotokopia.
3. Enpresarekin edo zaintzailearekin ezarritako kontratuaren kopia, indarrean dagoena eta, gutxienez ere, diruz laguntzeko epearen zati bat hartzen duena.
4. Kontuaren titulartasuna egiaztatzen duen dokumentua.
5. Erakunde eskudunak emandako menpekotasun edo ezgaitasun egoeraren aitortpena edo mediku txostena eta laguntza pertsonala behar izatearen balorazioa, betiere, izapideak abian badira.
6. Zerga eta gizarte segurantzarekiko betebeharrak administrazioaren aurrean egunean izatea egiaztatzen duen agiria.

7. Zinpeko adierazpena, egiaztatzen duena eskatzaileak ez duela oro har diru-laguntzak jasotzeko inolako eragozpenik eta, zehazki, oinarri hauen onuradun berezien eskakizunak betetzen dituela.

8. Hala badagokio, genero indarkeriaren biktima izatearen ziurtagiria; egoera hori genero indarkeriaren aurkako oso-osoko babes emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 23. artikuluan aurreikusitako edozein moduren bitartez egiaztatu beharko da (dagokion epaiaren, biktimaren aldeko babes aginduaren, eta abarren bitartez).

9. PFEZ aitortpena dela-eta:

a. PFEZ aitortu behar duenak edo aitortu duenak, honako hauek egiaztatu beharko ditu:

– Eskariak aurkezteko epea amaitzerakoan, igaro den azken zerga ekitaldiko pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren inguruan aurkeztutako aitortpenaren fotokopia, orijinalarekin batera, erkaketa egiteko.

– Gainera, halakorik jasotzen bada, laguntzako prestazioen ziurtagiria.

b. PFEZ aitortu behar ez duenak eta aitortpena aurkeztu ez duenak honako hauek egiaztatu beharko ditu:

– Ekitaldi horretako diru-sarreraren egiaztapen ofiziala (Eskariak aurkezteko epea amaitzerakoan muga eguneratutako azken ekitaldi fiskala).

– Ekitaldi horretan PFEZren aitortpena aurkezteko beharrik ez duela egiaztatzen duen foru ogasunaren egiaztapen ofiziala (Eskariak aurkezteko epea amaitzerakoan, igaro den azken zerga ekitaldia).

– Pentsioa edo edozein beka, prestazio edo laguntza jasotzen dutenen kasuan (Gizarte Ongizatearen laguntzak barne), haien ziurtagiria, ekitaldi horretakoa.

10. Zinpeko adierazpena; bertan jaso behar da, hala badagokio, beste diru sarrera batzuk badaudela (zenbatekoa zehaztu behar da), edota beste erakunde batzuei eginiko diru-laguntzen eskabideak.

11. Laguntza emateko eskakizunak kontuan hartuta egon daitekeen bestelako dokumentazioa.

Eskatzaileek berariaz baimendu beharko dituzte Zuiako Udaleko udal zerbitzuak organo eskudunei laguntzen onuradun izateko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen direla egiaztatzeko behar diren datuak eskatzeko, Datu Pertsonalak Babesteko indarrean dagoen araudian ezarritakoari jarraikiz.

7. artikulua. Hutsak zuzentzea

Aurkeztutako eskabidea edo erantsitako dokumentazioa osorik ez badaude edo konpondu daitekeen beste hutsik badute, eskatzaileari eskatuko zaio hutsa zuzentzeko, gehienez hamar egun baliouduneko epean, errekerimendua jakinarazi eta biharamunetik zenbatzen hasita, eta adieraziko zaio, hala egin ezean, eskabideari uko egingo zaiola, eta hura izapiderik gabe artxibatuko dela.

8. artikulua. Laguntzen zenbatekoa

Diru-laguntzaren zenbatekoa hileko errenta konpunterriaren ehuneko oinarri hartuta ezartzen da; gehienez eskabide bakoitzeko euro kopurua/hilabetea ezarriko da, gehienez 12 hileroko eperako, diru sarreraren eta lanaldiaren iraupenaren arabera. Diruz lagundu daitekeen gehieneko aldia zehazteko, dagokion kontratuaren data hartuko da kontuan.

Diru-laguntzaren zenbatekoa ezarritako tarte sistema batean ezartzen da, eskatzaileek egiaztatutako urteko diru sarrera haztatuen arabera, eta tarte bakoitzari ehuneko bat esleituko zaio.

Tarteen sistema

DIRU SARRERA HAZTATUAK	LANALDIA	DIRU-LAGUNTZA
3.000,00 euro - 15.000,00 euro	ehuneko 50	175,00 euro
	ehuneko 100	350 euro
15.000,01 euro - 19.000,00 euro	ehuneko 50	150,00 euro
	ehuneko 100	300 euro
19.000,01 euro - 24.000,00 euro	ehuneko 50	100,00 euro
	ehuneko 100	200 euro
24.000,01 euro - 30.000,00 euro	ehuneko 50	75,00 euro
	ehuneko 100	150,00 euro

Ehuneko 100 edo ehuneko 50eko lanalditzat joko da indarrean dagoen lan araudiak ezarritakoa. Lanaldiaren bitarteko tartetarako, laguntza proportzionala kalkulatu da.

Emango diren diru-laguntzen zenbatekoak, guztira, dagokion aurrekontu partidan gordailututako kopurua gainditzen badu, udalak hura hainbanatu dezake, 3.000,00 eta 15.000,00 euro bitarteko diru sarreraren tarteari ez dagozkion eskabideen artean.

9. artikulua. Laguntzak ordaintzea

Aitortutako diru-laguntza pertsonala da.

Diru-laguntza zatika ordainduko da, bi ordainketatan:

– Lehenengo ordainketa deialdia ebatzi ondoren egingo da. Lehen ordainketaren zenbatekoa proportzionala izango da egun horretara arte justifikatu diren nominen gastuekin.

– Bigarren ordainketa, diru-laguntzaren gainerakoari dagokiona, frogagiriak osorik aurkeztu ondoren egingo da, oinarri arautzaileen 10. artikuluan adierazten den bezala.

10. artikulua. Frogagiriak eta aurkezteko epea

Oro har, oinarri hauen helburu diren diru-laguntzak justifikatzeko ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko da, 2026ko abenduaren 28a baino lehen:

a. Zaintza kontratuari dagozkion nominen ordainagiriak.

b. Zerga eta gizarte segurantzarekiko betebeharrak administrazioaren aurrean egunean izatea egiaztatzen duen agiria.

c. Beste edozein administrazio, erakunde edo entitate publikotatik helburu bererako beste diru-laguntza edo laguntza batzuk eskuratu diren ala ez dioen zinpeko deklarazioa. Beste diru-laguntzaren bat eskuratu bada, lortutako zenbatekoa eta administrazio emailea adierazi eta datu horien egiazkotasuna ziurtatzen duen agiria aurkeztu beharko da.

11. artikulua. Onuradunen betebeharrak

Diru-laguntzen onuradunek ordenantzaren 3. artikuluan oro har aurreikusitako estipulazioak bete beharko dituzte eta, zehazki:

1. Zerga eta gizarte segurantzarekiko betebeharrak egunean izan beharko dituzte eta ez dira Zuiako Udaleko eta administrazio batzordeetako zordun izango.

2. Diru-laguntza ematen duen organoak, hala badagokio, egingo dituen egiaztapen jarduketak beteko dituzte, eta, horretarako, aurreko jarduketan ekitaldian eskatutako informazioa eta dokumentazioa aurkeztuko dute. Udal zerbitzuak etxebizitzara joan ahalko dira eta ikuskatu, bai eta udalaren datu baseak kontsultatu ere, oinarrietan ezarritako eskakizunak betetzen direla egiaztatzeko baino ez.

3. Laguntzen onuradunek, prozeduraren izapidetzean, eta laguntza eman denean, aitoren hori egitea ekarri zuten baldintzetan egon den edozein aldaketa eta laguntzarako eskubidea bat-batean galtzea ekar dezakeena jakinarazi beharko dute.

4. Laguntzen onuradunek lan kontratuan izandako edozein aldaketa jakinarazi beharko dute, gehienez hamar eguneko epean.

Betebehar horietako bat bete ezean, nahikoa izango da laguntza ezeztatzeko espedientea hasteko eta behar ez bezala kobratu diren kopuruak bueltatu behar izateko.

12. artikulua. Beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna

Oinarri hauen arabera emandako laguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako emandako beste laguntza batzuekin.

13. artikulua. Finantzaketa

Deialdi honen xede diren laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak horretarako Zuiako Udalaren aurrekontu orokorretan gordailututako aurrekontu kredituetatik etorriko dira. Horretarako, 6.000,00 euroko 231.480.090 partida erabili ahal izango du udalak laguntzak emateko eta horiek ezingo dute Zuiako Udalak horretara bideratutako zenbatekoa gainditu.

14. artikulua. Balorazio irizpideak

Laguntzak emateko oinarrizko irizpideak oinarri hauen 3., 4. eta 5. artikuluetan zehazten dira.

Baldintza eta eskakizunak betetzen direla egiaztatu ondoren, laguntzak emango dira, ordenantza honetan ezarritako baldintzetan.

15. artikulua. Prozedura

a) Jarraibideak eta proposamena:

1. Zuiako Udaleko laguntzak kudeatzeko batzorde arduradunari dagokio deialdi honetan aurreikusitako laguntzak bideratzeko lanak egitea. Eskabideak dagokion batzordean aztertu eta ebaluatuko dira, eta, irizpen baten bidez, ebazpen proposamena egingo zaio organo eskudunari.

2. Behin-behineko jakinarazpena egingo zaie interesdunei, iragarki oholaren eta Zuiako Udalaren web orrialdearen bidez, eta, horretarako, hamar eguneko epea emango da, alegazioak aurkezteko.

3. Aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, behin betiko ebazpen proposamena egingo da, eta, bertan, diru-laguntzaren onuradun izango diren eskatzaileen zerrenda eta diru-laguntzaren zenbatekoa zehaztuko dira. Diru-laguntza baldintzak bete dituzten guztien artean banatuko da; beraz, behin-behineko zerrenden ebazpenaren aurrean aurkeztutako alegazioak onartzen badira, aldaketak egon daitezke behin betiko zerrendetako kopuruetan.

b) Ebazpena:

1. Behin betiko ebazpen proposamena onetsi ondoren, alkatetzak prozedura ebartziko du, oinarriek ezartzen dutenarekin bat datorren ebazpen arrazoituaren bidez, eta egiaztatuta geratu beharko dira prozeduran ebazpenaren oinarriak.

2. Ebazpenak berariaz jaso beharko du gainerako eskabideen ezespena.

3. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da, deialdia aurkezteko epea amaitzen denetik hasita. Aipatutako epe horretan ebazpenik egon ezean, aurkeztutako eskabidea ezetsi egingo da.

4. Ebazpenean diru-laguntzaren zenbatekoa eta ordainbidea jasoko dira.

16. artikulua

Zuiako Udalak onuradunei egoki irizten dituen dokumentuak aurkezteko eskatu ahalko die.

Udal zerbitzuak etxebizitzara joan ahalko dira eta ikuskatu, bai eta udalaren datu baseak kontsultatu ere, oinarrietan ezarritako eskakizunak betetzen direla egiaztatze baina ez.

Laguntzen onuradunek Zuiako Udalak beren fiskalizazio zereginetan duen eskumenaren arabera eskatzen dien informazio guztia emango diote.

17. artikulua

Emandako diru-laguntzen zerrenda, onuradunak eta zenbatekoak aipatuko direla, bertako iragarki taulan argitaratuko dira.

Ez dira argitaratuko diru-laguntzak horien argitalpena, diru-laguntzaren helburua kontuan hartuta, pertsona fisikoen ohorearen errespetuaren eta babesaren, intimitate pertsonalaren eta familiarraren aurkakoa izan daitekeenean eta hala jasotzen denean diru-laguntza horren oinarri arautzaileetan.

18. artikulua

Oinarri hauek interpretatzeko orduan zalantzarik egonez gero, Zuiako Udalaren batzorde eskudunak ebatziko du.

19. artikulua. Errekurtsoak

Oinarri hauen aurka, hilabeteko epean, berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahalko da, deialdia onetsi duen organo eskudunaren aurrean, edo aurkaratu ahalko da zuzenean, bi hilabeteko epean, administrazioarekiko auzien epaitegian. Epeak, bi kasuetan, oinarri hauek argitaratu eta biharamunetik hasita zenbatuko dira.

AYUNTAMIENTO DE ZUIA
MURGIA (ALAVA)



ZUIAKO UDALA
MURGIA (ARABA)

Mendekotasuneko pertsonak zaintzeko subentzioa - Diru laguntza eskabidea

Subvención para cuidados de personas dependientes - Solicitud de subvención


Izen-deiturak/ Nombre y apellidos		NAN-AIZ / DNI-NIE	
Helbidea / Domicilio		Herria / Población	PK / CP
E-mail	Telefonoa	Zuian erroldatua / Empadronamiento en Zuia <input type="radio"/> Bai/ Sí <input type="radio"/> Ez / No	
Banketxea / Banco	Kontu korrontearen zenbakia / Número de cuenta corriente		
Eskatu edo jaso al duzu xede berberarako bestelako laguntzarik? (jaso badira, zenbatekoa azaldu): ¿Has solicitado o recibido otras ayudas para el mismo fin? (si se han recibido, especificar importe): <input type="radio"/> Bai, zehaztu zenbatekoa / Si, especificar importe <input type="radio"/> Ez dut jaso edo eskatu/No he recibido ni solicitado ninguna			
Administrazio edo enpresa /Administración o empresa		Zenbatekoa / Importe	
Baimena ematen diot espresuki Zuiako Udalari sektore publikoko edozein entitatetik beharrezkoak diren datuak zuzenean jasotzeko, haiekin egiazta dezan izenburuan agertzen den diru laguntza eskatzeko baldintza guztiak betetzen direla. <input type="radio"/> Bai <input type="radio"/> Ez		Autorizo expresamente al Ayuntamiento de Zuia para recabar directamente de cualquier entidad perteneciente al sector público los datos necesarios para acreditar el cumplimiento de las condiciones requeridas para la solicitud de subvención indicada en el título de este impreso. <input type="radio"/> Sí <input type="radio"/> No	
*Ezezkoan, aipatutako dokumentazioa aurkeztu beharko da.		*En caso negativo se deberá aportar tal documentación.	
Diru-laguntzei buruzko azaroaren 2003 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13. Artikuluko baldintzak betetzen ditudala adierazten dut. <input type="checkbox"/>		Declaro que cumplo los requisitos del art.13 de la Ley General de Subvenciones 38/2003, de 17 de noviembre de 2003 <input type="checkbox"/>	
Nire erantzukizunpean adierazten dut etxean edo/eta famili inguruan artatua izatea. <input type="checkbox"/>		Declaro bajo mi responsabilidad ser atendido dentro del domicilio y/o entorno. <input type="checkbox"/>	
Nire erantzukizunpean adierazten dut goian azaldutako datuak egiazkoak direla. <input type="checkbox"/>		Declaro bajo mi responsabilidad que los datos indicados arriba son ciertos <input type="checkbox"/>	
Aurkezten den dokumentazioa: - Eskatzailearen NANA. <input type="checkbox"/> - Kontuaren titulartasuna egiaztatzen duen agiria. <input type="checkbox"/> - Enpresaren edo zaintzailearen kontratua <input type="checkbox"/> - Mendetasun-azterketa edo txosten medikoa <input type="checkbox"/> - PFEZaren aitortpena edo, halakorik ezean, diru-sarreren egiaztagiria. <input type="checkbox"/>		Documentación que se presenta: - Fotocopia del DNI de la persona demandante. <input type="checkbox"/> - Documento que acredite la titularidad de la cuenta. <input type="checkbox"/> - Contrato de la empresa o persona cuidadora <input type="checkbox"/> - Reconocimiento de dependencia o informe médico. <input type="checkbox"/> - Declaración IRPF o en su defecto documento acreditativo de ingresos. <input type="checkbox"/>	

Sinadura / Firma

Data/ Fecha

Udal plaza, 1
Murgia - ZUIA
01130 ARABA

945 430 005
<http://www.zuia.eus/>
azuia.general@ayto.araba.eus

AYUNTAMIENTO DE ZUIA MURGIA (ALAVA)		ZUIAKO UDALA MURGIA (ARABA)
Datu babesari buruzko informazioa		Información adicional protección de datos
Tratamenduaren arduraduna		Responsable del tratamiento
Identitatea: Zuiako Udala – IFZ P0107200H Helbidea: Udal plaza,1 – 01130 Murgia (Araba) Telefonoa: 945 430 005 E-mail: zuiakoudala@ayto.araba.eus	Identidad: Ayuntamiento de Zuia – NIF P0107200H Dirección: Plaza del ayuntamiento,1 – 01130 Murgia (Álava) Teléfono: 945 430 005 E-mail: zuiakoudala@ayto.araba.eus	
Datuen Babesaren Ordezkarria: azuia.dbo@ayto.araba.eus		Delegado/a Protección de Datos: azuia.dbo@ayto.araba.eus
Tratamenduaren xedea		Finalidad del tratamiento
Helburua: Eskatutako diru-laguntzei dagokien informazio pertsonalaren kudeaketa. Gordetzeko epeak: Subentzioen espedienteak Diru-laguntzaren deialdiko espedientearen kontserbazio iraunkorra Urte 1 ukatutako banakako espedientetarako eta 8 urte diru-laguntza onartutako espedientetarako.		Finalidad: Gestión de la información personal relativa a la concesión de subvenciones solicitadas. Plazos de conservación: Expedientes de subvenciones Conservación permanente del expediente de convocatoria de lasubvención. 1 año para expedientes individuales denegados y 8 años para expedientes concedidos.
Legitimazioa		Legitimación
Botere publikoaren egikaritzea DBEOren 6.1.e) artikulua 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Diru-Laguntzei buruzko Lege Orokorra 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Diru Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean Erregelamendua onartzen duena		Ejercicio de la potestad pública: art. 6.1.e) RGPD Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones
Hartzaileak		Personas destinatarias
Legeak ezarritakoak eta tratamendu honen esparruan aplikagarri direnak.		Las establecidas legalmente y que sean de aplicación en el ámbito de este tratamiento.
Eskubideak		Derechos
Interesdunek honako eskubide hauek dituzte: <ul style="list-style-type: none"> Zuiako Udala interesdunen datu pertsonalak tratatzenari den ala ez dioen baieztapena jasotzeko eskubidea. Haien datu pertsonaletara sarbide izateko, okerrak diren datuen zuzenketa eskatzeko, edo, kasuan kasu, ezabatze eskubidea, datuak jaso ziren beharriaztatutako jada beharrezkoak ez direnean. Egoera jakin batzuetan honako hauek eskatzeko: <ul style="list-style-type: none"> Datuen tratamendua mugatzea. Kasu horretan, Zuiako Udalak erreklamazioen aurrean defendatzeko edo haiek egikaritzeko gordeko dituzte. Datuen tratamenduaren aurka egitea. Kasu horretan, Zuiako Udalak datuak tratatzeazti utziko dio, salbu eta arrazoi legitimo larriak baldin badaude edo erreklamazio posibleen defentsa edo egikaritzea badago. Banakako erabaki automatizatuetarako datuen tratamenduaren aurka egiteko eskubidea ere erabil dezake. Eskubide horiek Zuiako Udalaren aurrean egikaritu ahal izango dira. Helbidea: Udal plaza, 1- 01130 Murgia (Araba). Eskubideen egikaritzean behar den arreta jaso ez bada, Datuen Babeserako Euskal Bulegoaren aurrean erreklamazioa jarri ahal izango da. Helbidea: Tomas Zumarraga Dohatsuaeren kalea, 71 - 3. solairua - 01008 Vitoria-Gasteiz.		Las personas afectadas tienen derecho a: <ul style="list-style-type: none"> Obtener confirmación sobre si el Ayuntamiento de Zuia está tratando sus datos personales. Acceder a sus datos personales, así como a solicitar la rectificación de los datos inexactos o, en su caso, solicitar la supresión cuando, entre otros motivos, los datos ya no seannecesarios para las finalidades para las cuales fueron recabados. Solicitar en determinadas circunstancias: <ul style="list-style-type: none"> La limitación del tratamiento de sus datos, en cuyo caso sólo serán conservados para el ejercicio o la defensa de reclamaciones. La oposición al tratamiento de sus datos, en cuyo caso, el Ayuntamiento de Zuia dejará de tratar los datos, salvo por motivos legítimos imperiosos, o el ejercicio o la defensa de posibles reclamaciones. Incluido el tratamiento de sus datos para decisiones individuales automatizadas. Los derechos podrán ejercerse ante el Ayuntamiento de Zuia – C/ Plaza del ayuntamiento, 1 – 01130 Murgia (Álava) Si en el ejercicio de sus derechos no ha sido debidamente atendida o atendido, podrá presentar una reclamación ante la Agencia Vasca de Protección de Datos. Dirección: C/ Beato Tomásde Zumárraga, 71 – 3ª planta - 01008 Vitoria-Gasteiz.
Udal plaza, 1 Murgia - ZUIA 01130 ARABA		945 430 005 http://www.zuia.eus/ azuia.general@ayto.araba.eus